Donazaharreko elkargoaren etxea

Arbola bat ilunpean, udazkeneko hosto tapiza bat lurrean… Amets bidaiari galduak «Tzirtziltzil»-en ezagutza egiten du… Eta harrigarriena, piano zahar bat oihan erdian, lo. Huna hemen ikusi duguna urriaren 9an, Donazaharreko elkargoaren etxean. Stephane eta Patrik artistek «oihaneko piano», ipuin musikal eta poetikoa aurkeztu daukute. Plazer handia hartu dugu akordeoia, xirula, ttunttuna eta pianoaren soinu ederren entzutearekin. Eskolan, gure erakasleekin, aitzinetik kantuak landu genituelakoz, gogotik kantatu dugu. Ikusgarriaren bukaeran musika tresnak hunkitu ahal izan ditugu! Kasu emanez, nola ez! Artisten dohaina txalokatzen dugu, ateraldi hau diruztatzen lagundu gaituzten Donibane Garaziko Herriko Etxea eta eskolako burasoen elkartea eskertzen ditugu. Memento xoragarria begi, beharri eta bihotzarendako. Milesker!

Donibane Garaziko Santa Maria eskolako ikasleak

EUSKAL HAZIAK
ELEBIDUN BIETAN HOBE
HAZIAK mintzo

Aldude Lepederreko saretegien bisita

Azaro hastapenean, lehen mailako ikasleek egin dute urteko lehen ateraldia Lepederreko saretegietarat. Usotegi hau 1906an sortu zen eta luzaz familia berak kudeatu du; 2006az geroz tokiko elkarte batek du egiten. Horko arduradunek nahi ukan diete esplikatu haurreri nola egiten zen ihizi mota hori eta zoin ziren postu bakotxaren eginbideak.

Xatarlariek inarrosten dute oihal xuri bat usoek xaretako lepoko bidea har dezaten; palote botatzaileek paloteak tiratzen dituzte usoak apalarazteko eta azkenik sare botatzaileak botatzen dituzte sareak lurrera usoak zepoan harrapatzeko.

Bainan denek erne egon behar dute ikusteko noiz heldu diren uso tropak eta besteen abisatzeko tuta bati esker.

Maleruski, egun hortan, ez dugu ikusi uso pasarik bainan tresna desberdinak entseatu ditugu!

Aldudeko Mendi Alde eskola

Alherrako eskola libroan, mus-a belaunaldiz-belaunaldi transmititzen da

Negua hurbiltzen ari da: karta-jokoak berriz ateratzeko garai ezin hobea, supazter xokoan… edo gelan! 2. garai huntan, arratsalde hastapenek beste zaporea hartu dute. Bi aldiz astean, Frantziako Mus Federazioko bi kide eskolara etortzen dira Euskal Herriko joko karta enblematiko hunen erakasteko. Atsedenaldi soila baino gehiago, saio horiek egiazko transmisio kultural eta partekatze guneak bihurtu dira. Bi boluntariok, pazientziaz eta onginahi anitzekin, jokoaren arauak azaltzen dauzkigute, joko hunen historia kondatuz eta gure lehen partidetako urratsetan laguntzen gaituzte. Fite, jokoan murgiltzen gira: estrategiak garatzen ditugu, aizu diren zonbait gezur erraiten eta punduen kondatzen ere ikasten dugu. Bainan proiektu hau berezia egiten duena bere belaunaldi arteko dimentsioa da. Adindunen anekdotak entzunez eta esperientziaz baliatuz, elgarrekin jostatzeko plazera deskubritzen dugu herriko bi aitatxirekin harreman pollitak sortuz. Giza esperientzia ederra, tokiko tradizioak biziarazten dituena eta aldi berean, topaketa, errespetua eta elkarbizitza lantzen dituena. Proiektu ederra nun bakoitza irabazle ateratzen den mus partida irabazi gabe ere.

Aiherrako eskola libroko ikasleak

EUSKAL HAZIAK
ELEBIDUN BIETAN HOBE
HAZIAK mintzo

Laborantzaren inportantzia

Gure artikuluak laborantza aipatuko du. Hautatu dugu gai hori, momentu hauetan lantzen ari giren gaia baita. Donapaleuko Etxekopar kolegioko 6.eko ikasleak gira, orotara 8 ikasle. Artikulu honen bitartez, nahiko genizueke erakutsi laborantza zenbat inportantea eta lan ederra den, beti ere, euskara landuz. Anitzek etxean badugu baserri bat, edo inguruan. Batzuek, behiak, besteek ardiak edota zaldiak. Ikaskideen artean, erdiak laboraria izan nahiko du, berandugo. Animaleak maite baititugu eta haien zaintzea edota lastoaren egitea. Horretarako, nahiko ginuke aita eta amen segida hartu. Beste erdiak, nahiz eta laborantza maite dugun, batek bixkotx egilea izan nahiko du, beste batek matematikako erakasle eta azken batek marexal, berriz ere animaleei loturik. Denek pasio bat dugu animaliekin. Laborariaren lana inportantetzat dugu, janariaren ekoizpena bermatzen baitigute. Horrez gain, lokalki produzitua dena jaten dugularik, permititzen du segurtasun handiagoa jaten dugunari buruz, eta ez transformatua izatea. Ederra iduritzen zaigu, baita ere, nola laborariek lan egiten duten haien animaleen ongizatea bermatzeko. Biziki goiz iratzartzen dira, berant lokartuz, ekoizpen onaren emateko. Haien lanaren bidez, natura zaintzea beharrezkoa dute, jakinik zenbat ofiziok kutsatzen duten ondoan… Laborantza lan eder eta ona da, janaria ematen digulako eta indar anitz egiten duelako ekoizpen osasuntsuen eta sanoen banatzeko. Alta, halek ez dute merezimendurik xerkatzen, baizik eta eskaintza.

Donapaleuko Etxekopar kolegioko ikasleak